

Coresmenak!

Félicitations!



Zorionak!

La famille

Faites lui un cadeau pour la vie,
Offrez lui la langue basque !

Développer la transmission et l'usage de la langue basque : c'est tout le sens de la politique publique conduite en faveur de la langue basque, pour que la langue basque soit transmise et parlée, dans tous les pans de la vie personnelle et sociale.

La famille est un maillon clé dans la transmission de la langue basque aux enfants. Vous parents, avez un rôle majeur à jouer dans cette transmission qui peut se faire grâce à de nombreux outils : en parlant basque à votre enfant dès son plus jeune âge, en choisissant pour votre enfant un mode de garde bilingue ou en basque (crèche ou assistance maternelle), en optant pour une scolarisation en langue basque. Ces différents modes de transmission se complètent et s'enrichissent l'un l'autre.

Aujourd'hui, nous souhaitons vous sensibiliser plus particulièrement sur le rôle stratégique de la transmission familiale. La famille est en effet le refuge du bébé, sa première école, l'école des émotions, des valeurs et des sentiments.

En offrant à votre enfant la chance d'être bilingue dès son plus jeune âge, vous

lui offrez la chance de vivre la langue et la culture basque. Vous lui offrez une richesse pour lui-même, une ouverture à sa culture et aux cultures des autres. Vous lui offrez aussi un éveil au plurilinguisme, grâce aux compétences langagières acquises dès le plus jeune âge. En offrant à votre enfant la langue basque, vous lui offrez un atout pour la vie, vous lui faites le plus beau des cadeaux.

Le Président de l'Office Public de la
Langue Basque :
François MAÏTIA

Le Maire de Biarritz :
Didier BOROTRA

Les Présidents
des Communautés de Communes :
- Eric NARBAIS-JAUREGUY, Amikuze
- Lucien DELGUE, Iholdi-Oztibarre
- Jean-Michel GALANT, Baigorri-Garazi
- Paul BAUDRY, Errobi
- Michel HIRIART, Sud Pays Basque
- Dominique BOSCCQ, Soule-Xiberoa
- Pierre HAIÇAGUERRE,
Pays d'Hasparren



Familia

Egin iezaiozue opari bat bizi guziraiko,
Euskara eskain iezaiozue !

Euskararen transmisioa eta erabilpena garatzea : hori da euskararen alde eramaiten den hizkuntza politika publikoaren helburua, euskara transmititua eta mintzatua izan dadin, bizitza pertsonala eta sozialeko eremu guzietan.

Familia oinarritzeko katea da euskararen transmisioan. Zuek, gurasoek, funtsezko eginbidea duzue transmisio hortan. Hainbat bide dituzue hortarako : ttipi ttipitik haurrarekin euskaraz mintzatzea, euskaraz edo elebidunez ari den haurtzaindegi edo ama laguntzaile bat hautatzea, euskarazko irakaskuntza hautatzea... Transmisio molde ezberdin horiek elgar osatzen eta aberasten dute.


Gaur, familia bidezko transmisioaren funtzio estrategikoaz bereziki sentsibilizatu nahi zaituztegu. Alabaina, familia da haurraren geriza lekua eta lehen ikastetxea : emozio, balore eta sentimenduen ikastetxea. Zuen haurrari, elebiduna izaiteko aukera emanez ttipi ttipitik, euskara eta euskal kultura bizitzeko xantza emaiten diozue. Aberastasun bat eskaintzen diozue, irekidura bat, bere kulturari eta besteen kulturari buruz. Eleaniztasunari atea irekitzen diozue gazte-gazterik, barneratuko dituen hizkuntza gaitasunei esker. Zuen haurrari euskara eskainiz, bizitza osorako gaitasun bat emaiten diozue. Egiten ahal den oparirik ederrena egiten diozue.

Euskararen Erakunde
Publikoko Lehendakaria :
François MAÏTIA

Biarritzeko Auzapeza :
Didier BOROTRA

Herri Elkargoen Lehendakariak :

- Eric NARBAIS-JAUREGUY, Amikuze
- Lucien DELGUE, Iholdi-Oztibarre
- Jean-Michel GALANT, Baigorri-Garazi
- Paul BAUDRY, Errobi
- Michel HIRIART, Euskal Herri Hegoalde
- Dominique BOSCOQ, Soule-Xiberoa
- Pierre HAIÇAGUERRE, Hazparneko Lurraldea



Comment aider l'enfant dans son développement linguistique ?

Il est souhaitable que le bébé ait dès le plus jeune âge une relation enrichissante avec la langue. Il est donc conseillé de lui parler beaucoup. Il est aussi recommandé de chanter, lire et surtout jouer avec lui. Jouer est aussi important que manger ou dormir. Par l'intermédiaire du jeu, le bébé intègre peu à peu les comportements et stratégies qui lui permettront de vivre en société.

La langue est aussi un jeu. Dès ses premiers mois, l'enfant a envie de jouer avec les mots qu'il apprend. Plus nous lui parlons et mieux il saura formuler ses pensées et exprimer ses sentiments.

« Entre 0 et 4 ans, l'enfant dispose d'une capacité neuronale maximale. C'est ce que l'on appelle « l'âge du langage ». Lorsque les parents ne peuvent assurer un suivi en basque, ils peuvent aider leur enfant par la claire affirmation de leur désir d'une éducation bilingue, en montrant de l'intérêt pour cette langue ou encore en prenant le rôle d'élèves apprenant le basque auprès de leur enfant qui en sait très vite davantage qu'eux. »

Gilbert DALGALIAN, psycholinguiste.
Les ateliers du bilinguisme de Biarritz.
20 mai 2010.

Bere hizkuntza-garapenean haurra nola lagun daiteke ?

Haurrak hizkuntzarekin harreman ahal bezain goiztiarra eta aberatsa ukan dezan biziki inportantea da. Hortarako egokiena da haurrarekin frango mintzatzea. Bestalde, gomendagarria da haurrarekin kantatzea eta irakurtzea, bai eta ere oroz gain jostatzea. Jostatzea, jatea eta lo egitea bezain beharrezkoa da. Haurrak jokoaren bidez urratsez urrats, jendartean bizitzeko jokabideak eta estrategiak bereganatzen ditu.

Hizkuntza bera ere, jokoa da. Lehen hilabeteetatik haurrak ikasten dituen hitzekin jostatzeko gogoia du. Gurasoek zonbat eta gehiago hitz egin, hainbat eta hobeki ikasiko du haurrak bere gogoetak bai eta ere sentimenduak adierazten.

« Haurrak ahalmen neurologiko gehiena 0 eta 4 urte artean dauka. Hori « hizkuntza-ren adina » deitzen da. Euskaraz mintzatzeko gai ez diren aita-amek ere beren haurra lagun dezakete heziketa elebidunaren nahia argiki baieztatuz, hizkuntza horrendako interesa erakutsiz edo berek baino gehiago dakien haurrarekin ikasle gisa euskara ikasiz. »

Gilbert DALGALIAN, psikolinguista.
Biarritzeko Elebitasunaren langiak.
2010eko maiatzaren 20an.



La langue basque en quelques mots

Hier

Langue pré-indo-européenne, antérieure à l'arrivée des Celtes, des Romains ou des Germains, déjà présente 2000 ans avant notre ère, la langue basque est une des plus anciennes langues vivantes d'Europe de l'Ouest. A certaines époques historiques, le basque s'est étendu à des régions éloignées qui se trouvent aujourd'hui hors du territoire linguistique basque. A noter que le premier livre publié en basque date de 1545 (*Linguae vasconum primitiae* écrit par l'auteur Garaztar Bernat Etxepare).

Aujourd'hui

Le basque est parlé par près de 873 000 personnes dont 60 000 en Pays Basque de France (IV. enquête sociolinguistique réalisée par le Vice Ministère à la Politique Linguistique du Gouvernement basque et l'OPLB). L'euskara est enseigné à l'école, à l'université, utilisé par les médias (TV, radio, presse écrite), dans la signalisation routière, dans le monde économique et dans les loisirs.

Demain

On constate des signaux positifs qui traduisent la volonté de se réapproprier et de faire vivre l'euskara dans les années à venir et tout particulièrement chez les jeunes générations. La courbe de pourcentage de bascophones par classe d'âge est répartie à la hausse chez les 16-24 ans. Et dans cette tranche d'âge les jeunes qui apprennent l'euskara sont désormais plus nombreux que ceux qui perdent la maîtrise de la langue basque. Par ailleurs, on constate que les parents des jeunes enfants transmettent davantage la langue que ne le faisaient leurs aînés.

Ces nouvelles tendances s'appuient sur des attitudes majoritairement favorables au développement de la langue basque.

Euskara bi hitzez

Atzo

Euskara hizkuntza aitzin-indoeuroparra da. Zeltiarrak, Erromatarrek edo Germaniarrak baino lehenago hemen zena, 2000 urte gure garaia aitzin. Euskara Europa mendebaldeko mintzaira zaharrenetarik bat da. Historiako garai jakin batzuetan euskararen eremua egungoa baino ainitz zabalagoa zen. Euskarazko lehen liburua 1545ean argitaratua izan da : Bernat Etxepare Garaztarrak idatzi *Linguae vasconum primitiae*.

Egun

Euskal Herri osoan 873 000 euskaldun zenbatzen dira eta 60 000 Iparraldean (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta EEPk antolatu IV. inkesta soziolinguistikokoaren arabera). Euskara eskoletan bai eta ere unibertsitateetan erakusten da. Hedabideek erabiltzen dute hala nola telebistak, prentsa idatziak edo irratiak. Alor ekonomikoan eta astialdietan baliatua da ere.

Bihar

Euskara biziberritzeko nahia erakusten duten seinale on batzuk agertzen dira eta bereziki gazte belaunaldietan. Euskaldunen ehunekoak berriz gora egiten du 16-24 urte arteko adin taldean. Bestalde, adin arte hortan euskara ikasten duten kopuruak mintzaira galtzen dutenena gainditzen du. Belaunaldiz belaunaldiko transmisioan, haur gazteen gurasoek euskara transmititzen dute aitzineko aita-amek baino gehiago. Norabide berri hauek euskararen aldeko giro batean oinarritzen dira.





Quelques bonnes raisons d'offrir à votre enfant la chance de parler deux langues, quelques bonnes raisons de lui transmettre la langue basque !

1. Une richesse pour votre enfant : une langue, c'est avant tout une vision du monde. Parler deux langues permet d'acquérir deux manières de penser le monde.

2. Stimuler l'éveil, prendre plaisir en apprenant : le bilinguisme précoce stimule les capacités étonnantes des enfants pour apprendre les langues, et ce dès leur naissance.

3. Une porte d'entrée vers le plurilinguisme : l'apprentissage d'une troisième ou quatrième langue est facilité quand l'enfant est bilingue dès le plus jeune âge.

4. Une ouverture à sa culture, une ouverture aux autres : parler le basque, c'est mieux connaître sa culture et sa région. Mais c'est aussi mieux comprendre ceux qui parlent d'autres langues.

5. Un environnement favorable dans son lieu de vie : le Pays Basque a une

forte identité du fait de sa langue, sa culture. Parler basque c'est se familiariser avec le Pays Basque : ses habitants, ses lieux, sa musique, sa culture... mais aussi sa modernité (médias, internet, création...).

6. Un atout pour son futur professionnel : l'euskara est un atout pour vivre et travailler au Pays Basque. C'est un plus pour de plus en plus d'employeurs, dans les secteurs les plus divers : enseignement, médias, petite enfance, tourisme, santé, social, commerce, emplois des mairies et collectivités...

... Sans oublier toutes les autres raisons que vous avez d'aimer l'euskara et de vouloir le transmettre à vos enfants !



Hona arrazoin on batzuk zuen haurrari bi hizkuntza mintzatzeko parada eskaintzeko, euskara eskaintzeko arrazoibide on zenbait !

1. Zuen haurrarentzat aberastasuna baita: mintzaira, munduaren ikusteko molde bat da lehen lehenik. Bi hizkuntza mintzatuz, munduaren pentsatzeko bi molde eskura daitezke.

2. Bizkorrago ernatzen da, ikasiz atsegina hartzen du : elebitasun goiztiarrak haurrek hizkuntzen ikasteko dituzten gaitasun harrigarriak akuilatzen ditu, sortzetik beretik.

3. Eleaniztasunerako sargia : hirugarren edo laugarren hizkuntzaren ikastea errexago da, haurra adin ttipitik elebiduna delarik.

4. Irekidura bere kulturari eta besteei : euskaraz mintzatzea, bere kultura eta eskualdea hobeki ezagutzea da. Baina beste hizkuntza bat mintzatzen dutenen hobeki ulertzea ere da.

5. Ingurumen emankorra bizilekuan : Euskal Herria nortasun handikoa bada, bere mintzaira eta bere

kulturari esker da.

Euskaraz mintzatzea Euskal Herriarekin etxekotzea da : bertako biztanle eta lekuekin, tokiko musika eta kulturarekin... bai eta ere bere modernotasunarekin (hedabideak, internet, sorkuntza...).

6. Haurraren lan-etorkizunarentzat abantaila da : Euskal Herrian bizitzeko eta lan egiteko, euskara abantaila

bat da. Enplegatzaile gero eta gehiagok baloratzen duten

gaitasun bat da alor askotan : irakaskuntzan, hedabideetan, lehen haurtzaroan, turismoan, osasungintzan, lan sozialean, merkataritzan, Herriko Etxe eta Elkargoetako enplegetan...

... Aherentzi gabe euskara maitatzeko eta zuen haurrei emaitako dituzuen beste arrazoin guziak !



Cas de figure n°1 - Vous ne savez pas le basque ?

Même si vous ne parlez pas basque, donnez à votre enfant la chance de l'apprendre en vous appuyant sur les structures d'accueil bascophones et sur votre environnement !

Même si vous ne parlez pas basque, votre enfant peut l'apprendre et vous lui offrez ainsi la chance d'être bilingue précoce.

Pour cela, il est important que le basque soit pour le bébé une langue familière et présente dans son environnement (voisinage, mode de garde...) dès le plus jeune âge : vous pouvez ainsi choisir une crèche ou une assistante maternelle assurant un accueil basque. Plus tard, optez pour une

scolarisation en langue basque dès la maternelle.

Même si vous ne parlez pas basque vous-même, il est essentiel que vos enfants se sentent soutenus dans leur apprentissage. Vous pouvez les accompagner et les soutenir, d'abord en leur faisant sentir l'intérêt que vous portez à la langue basque : par l'intermédiaire du jeu, en leur faisant écouter de la musique, en leur offrant des livres en basque, en assistant à des spectacles en basque... Intéressez-vous aussi à ce que vos enfants font et apprennent en basque. Et pourquoi pas ? Faites-vous leur élève, et apprenez grâce à eux vos premiers mots de basque !

"Issu d'une région où la langue et les traditions sont fortement ancrées, il m'a semblé évident d'inscrire mes deux enfants dans une école publique bilingue pour plusieurs raisons, à savoir :

- s'intégrer plus facilement parmi les enfants natifs d'ici,*
- les aider à s'imprégner de la culture et des coutumes basques plus aisément,*
- et grâce à cette gymnastique (français/basque) dès la maternelle, leur faciliter plus tard dans leur scolarité, l'apprentissage de nouvelles langues".*

Thomas LIEVRE MONT
Entraîneur de rugby professionnel.

2. egoera - Biek euskara emaiten dugu !

Familia da euskara ikasteko molderik eraginkorrena, errexena.

Haurrei etxeko euskara mintzatu behar zaie.

"Guretako xiberotar mintzajeak parada emaiten deikü eüskaldün güziekin harremanetan sartzea bai eta jeietan kantoneren gozatzea.

Gure ametsa da arbasoek ützi deiküen aberastarzün horren gure haurren eskü üztea. Hortarako dügü ikastolaren haütüa egin."

Sophie TOURREUIL,
3 haurren ama
eta Lucien LARRAUS,
Xiberoko kabale ehogiako
langilea.

Ez dugu ahortzi behar haurrek, hizkuntza ikasten ari direnean, hizkuntza hori baliatzeko ohiturak ere berenganatzen dituztela (norekin eta noiz baliatzen dugun edo ez dugun baliatzen). Beraz, gurasoen eta helduen artean euskaraz ariz gero, haurrak euskara baliozko tresna dela ikusiko du tipidanik.



Cas de figure n°3 - L'un est bascophone, l'autre non...

Parlez-leur l'un en basque et l'autre en français (ou dans votre langue) !

C'est une situation très répandue à travers le monde entier.

Un parent, une langue : adressez-vous à votre enfant chacun dans votre langue ! Ainsi votre enfant aura la chance d'être bilingue très jeune. Les enfants vivent cette situation tout à fait normalement.

Il est essentiel que celui ou celle qui parle le basque dans le couple transmette l'euskara, de manière à ne pas laisser à l'école l'entière responsabilité de le faire. Ainsi, votre enfant aura la chance d'apprendre aussi le basque comme langue maternelle, de manière naturelle et sans effort, de s'y attacher, de le garder pour la vie. Transmettez le basque tel que vous le parlez !

Celui/celle qui ne parle pas le basque dans le couple emploiera la langue qu'il/elle maîtrise. Mais son attitude envers la langue basque est décisive : il est essentiel que la personne ne sachant pas le basque montre de l'intérêt pour l'euskara, par exemple via le jeu, le chant, en assistant à des activités culturelles en basque...

"Mon épouse est originaire de Charente et ne parle pas le basque. Issu d'une famille bascophone, j'ai été scolarisé en ikastola ; le basque est donc ma langue maternelle. Nous avons décidé de parler chacun notre langue, de façon bien distincte, à nos trois enfants. Même si leur rythme d'acquisition de chacune des langues a été différent, au bout de 3 à 4 ans, leur maîtrise linguistique du français et de l'euskara est épatante. Nous avons fait ce choix car le fait d'être bilingue leur apporte une ouverture et une vitalité d'esprit accrues ainsi qu'une excellente capacité à apprendre d'autres langues dans le futur."

Peio ETCHELECOU un responsable de la fromagerie AGUR.



3. egoera - Batek euskara badaki, besteak ez... Mintza zaitezte bat euskaraz eta bestea frantsesez (edo zure mintzairan) !

"Nire emaztea Charente eskualdekoa da eta ez du euskara mintzatzen. Nik aldiz, familia euskaldun batean hazia eta ikastolan ibilia, euskara daukat ama hizkuntza. Gure hiru haurrei, bakotxak bere hizkuntza, argiki ezberdinduz, mintzatzea erabaki dugu. Hizkuntza bakotxaren ikasteko erritmoa ezberdina izan bada ere, 3 - 4 urteren buruan bi hizkuntzak nola menperatzen dituzten ohargarria da. Hautu hau egin dugu iduritzen baitzaigu elebidun izaiteak izpiritu zalu eta irekiago bat sustatzen duela, bai eta ere geroari buruz, beste hizkuntza batzuen ikasteko ahalmena haunditzen."

Peio ETCHOLECOU AGUR Gasnategiaren arduetarik bat.

Mundu guzian barna egoera arrunta da.

Guraso bat, hizkuntza bat : kasu honetan haurrarekin bakotxak dakien hizkuntzan mintzatzea da egokiena. Horrela eginez haurra etxetik beretik elebiduna izanen da. Haurrek egoera hori normala atxemaiten dute.

Guraso euskaldunak haurrarekin euskara erabil dezan zinez inportantea da, zeregin hori eskolaren esku osoki utzi gabe. Horrela, zuen haurrak, euskara ama hizkuntza bezala ikasteko aukera ere izanen du, naturalki eta indarrik egin gabe, bai eta ere hizkuntza honen maitatzeko, bizi guzian atxikitzeko aukera. Euskara eman mintzatzen duzun bezala.

Euskalduna ez den gurasoak haurrarekin bere hizkuntza baliatu behar du. Bainan funtsezkoa da guraso horrek euskararekin izanen duen jokamoldea, eta haurrari sendiaraztea euskara maite eta preziatzen duela, adibidez kantuen eta jokoaren bidez.

Apprenez quelques mots et formules simples ! Oinarritzko hitz eta erranbideak ikas itzazu !

Familia / La famille

Ama : Maman

Aita : Papa

Arreba : Soeur (d'un garçon/homme)

Ahizpa : Soeur (d'une fille /femme)

Anaia : Frère (d'un garçon/homme)

Amatxi, Amama, Amona,

Amañi*, **Axama*** : Grand-mère

Aitatxi, Attetta, Aitona,

Aitañi*, **Axaita*** : Grand-père

Ttanta, Izeba : Tante

Otto, Osaba : Oncle

Kusia, Lehengusua, Kosi* : Cousin

Kusina*, **Küzüña*** : Cousine

Alaba : Fille

Semea : Fils

Ugazama, Goxama, Egüzama* : Marraine

Ugazaita, Goxaita, Egüzaita* : Parrain

Anai-arrebak : Frères et soeurs

Euskaraz mintzatu eta irakurri Prononcer et lire en basque

En basque, toutes les lettres se prononcent (sauf le "r" entre deux voyelles en souletin). La prononciation est parfois différente de celle du français, voici quelques exemples :

E se prononce **é**

U se prononce **ou**

Z se prononce **s**

S se prononce **sh**

X se prononce **ch**

En souletin, le **Ü** se prononce **u**, sauf devant les lettres "a" et "e", il se prononce alors **i**.

Hitz batzuk ikas itzazu ! / Apprenez quelques mots !

Bai : Oui

Ez : Non

Nor : Qui

Zer : Quoi

Nun : Où

Noiz : Quand

Nola : Comment

Orain : Maintenant

Egun, gaur, egün* : Aujourd'hui

Gaur, arrats huntan, gau honetan : Ce soir

Bihar : Demain

Milesker, eskerrik hanitx*, esker mila* : Merci

Ikus arte, ikus artio : Au Revoir

Zenbait erranbide / Quelques formules

Egun on aita, egün hon aita : Bonjour papa

Ohean ezartzen dut/düt* : Je le mets au lit

Gose dea ? Gose ote da ? : A-t-il faim ?

Haurra nigarrez/negarrez ari da : L'enfant pleure

Egizu lo ñimiño, ñiña* : Bonne nuit mon bébé

Ongi jan du : Il ou elle a bien mangé

Irriz ari da, erriz ari da* : Il ou elle rit



Urrunago joaiteko/Pour aller plus loin

Haurrak euskaraz josta daitezen, materiala ugari argitaratzen da urtero: liburu, diska, ... Opariak egiteko gisan, horra zuentzat zerrenda ttiki bat

Voici quelques idées de cadeaux pour permettre à votre enfant de jouer aussi en langue basque. En effet, il existe un important catalogue de livres, disques,... dont voici une liste.

Liburuak /Livres

Titulua, Argitaratzailea, Adina
Titre, Editeur, Age

Hotsen liburua, Ttarttalo

0-1 urte /ans

Ukitu eta ikusi ! - animalia txikiak, Ttarttalo

0-1 urte /ans

Amets handi bat, Pamiela

0-1 urte /ans

Musutxo bat sabelean, Ttarttalo

0-1 urte /ans

Pozik, Ttarttalo

1-3 urte /ans

Irudidun hiztegia, Ttarttalo

1-3 urte /ans

Gatu ttipi galdua, Ikas

2-3 urte /ans

Mattinen beldur-kutxa, Txalaparta

1-5 urte /ans

Ikusi-makusi baserrian, Ttarttalo

1-5 urte /ans

Diskak ,CD

Titulua, Argitaratzailea, Adina
Titre, Editeur, Age

Pantxika Solorzano, Bilintx, Elkar

0-3 urte /ans

Pello eta Otsoa, Ikas

0-3 urte /ans

Kantiruri, Ikas

0-3 urte /ans

Lodikroko, Ikas

2-3 urte /ans

Oskorri, Marijan kantazan !, Elkar

0-5 urte /ans

Haurrock, Balinba, Agorri

0-5 urte /ans

Egizu lo, Elkar

0-5 urte /ans

Mamu ttikien kantuak, Elkar

0-5 urte /ans

Pirritx, Porrotx eta Mari Motots,

Ongi etorri, Pupu eta Lore, Elkar

0-5 urte /ans



Pour toute information complémentaire / Xehetasun gehiagorentzat :

Office Public de la Langue Basque

Euskararen Erakunde Publikoa :

05 59 31 18 34

eep-oplb@mintzaira.fr

www.mintzaira.fr